

## SOLDATAK, PENTSIOAK, LANGABEZIA PRESTAZIOAK ETA GIZARTE AURREIKUSPENEKO ERRESKATEAK SEXUAREN ARABERA GIPUZKOAN- 2020

(Departamentuko web orrian, “Departamentuko beste argitalpen batzuk” atalean aurkitu daitezkeen txosten osoaren laburpen bat da)

-----


### 1. SOLDATAK

#### 1.1 Soldatak sexuaren arabera

Jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzekoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2020. urteko 319.516 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 7.787ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %2,4ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Soldatak jasotzen dituzten guztietatik, %46,6 emakumezkoak dira, eta beste %53,4 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek guztiaren %40,1 jasotzen dute, eta gizonezkoek %59,9.

**Grafikoa 1 – Soldaten banaketa sexuaren arabera -2020**



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezko soldatapekoen batez bestekoa 22.601 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 29.476 eurokoa.

## Grafikoa 2 – Soldaten batez bestekoa sexuaren arabera -2020



Azkeneko hamar urteetan emakumezkoen parte hartzea lan merkatuan nabarmen handitu da: 2011an 129.939 emakume ziren laneko soldatak jasotzen zituztenak; 2020an kopuru hori 145.367ra igo da, hau da, %11,9 gehiago. Gizonezkoak, berriz, 157.491tik 166.362ra pasa dira (+%5,6). Urtez urteko bariazioak aztertuz gero, soldatak jasotzen dituzten emakumezko kopurua 2013an eta 2020an bakarrik jaitsi zen; aldiz, krisia hasi zenetik gizonezko soldatapeko kopurua etengabe jaitsi da 2013. urte arte, eta 2020. urtean berriz egiten du behera. 2020an emakumezkoen kopurua %2,5 jaitsi zen, eta gizonezkoen kopuruak %2,8 egin zuen behera.

**Taula 1. Soldatapekoen bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2011</b>	129.939		157.491	
<b>2012</b>	130.619	0,5	157.298	-0,1
<b>2013</b>	128.699	-1,5	152.262	-3,2
<b>2014</b>	131.354	2,1	153.948	1,1
<b>2015</b>	135.184	2,9	156.927	1,9
<b>2016</b>	139.823	3,4	161.284	2,8
<b>2017</b>	143.916	2,9	165.180	2,4
<b>2018</b>	146.122	1,5	169.621	2,7
<b>2019</b>	149.143	2,1	171.182	0,9
<b>2020</b>	145.367	-2,5	166.362	-2,8
<b>2011/2020</b>		11,9		5,6

Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen pisua soldatapeko guztien artean 1,4 puntu igo da azken hamar urteetan: 2011an soldatak jasotzen zituzten pertsona guztien %45,2 zen emakumezkoa, eta 2020an, lehen aipatutako %46,6ra iritsi dira. Ondorioz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %54,8 izatetik %53,4 izatera pasa dira.



Kopuruaren bilakaera horrek isla izan du zenbatekoetan. Horrela, 2011an emakumezkoek jasotako soldatak 2.731 milioi euro izan ziren bitartean, 2020an 3.285 milioi euro izan dira; hau da, %20,3 gehiago. Gainera, taulan ikusten denez, 2012, 2013 eta 2020 urteetan izan ezik, beste guztietan bariazio positiboak izan dituzte.

**Taula 2. Soldaten bilakaera sexuaren arabera (milioi eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2011	2.731		4.431	
2012	2.706	-0,9	4.346	-1,9
2013	2.701	-0,2	4.239	-2,5
2014	2.738	1,4	4.294	1,3
2015	2.841	3,8	4.406	2,6
2016	2.939	3,4	4.547	3,2
2017	3.023	2,9	4.634	1,9
2018	3.185	5,4	4.961	7,1
2019	3.372	5,9	5.104	2,9
2020	3.285	-2,6	4.904	-3,9
2011/2020		20,3		10,7

Gizonezkoak jasotako soldatak %10,7 igo dira hamar urte hauetan: 4.431 milioi eurotik 4.904 eurora. Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen soldaten pisua 2,0 puntu igo da hamar urte hauetan: 2011ko 38,1etik lehen aipatutako %40,1era. Eta gizonezkoena %61,9tik %59,9ra pasa da.

**Taula 3. Batez besteko soldaten bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2011	21.014		28.138	
2012	20.713	-1,4	27.627	-1,8
2013	20.990	1,3	27.840	0,8
2014	20.846	-0,7	27.894	0,2
2015	21.018	0,8	28.076	0,7
2016	21.019	0,0	28.194	0,4
2017	21.007	-0,1	28.052	-0,5
2018	21.798	3,8	29.247	4,3
2019	22.611	3,7	29.815	1,9
2020	22.601	0,0	29.476	-1,1
2011/2020		7,6		4,8




2011tik 2020ra emakumezko soldatapekoen batez bestekoa %7,6 igo da: 21.014 eurotik 22.601 eurora. Gizonezko soldatapekoena, berriz, %4,8 igo da: 28.138 eurotik 29.476 eurora.

Sexuen arteko batez bestekoaren arrailak gora-behera handiak izan ditu azken hamar urte hauetan:

- 2011. urtean 7.123 eurokoa zen. Horrek adierazten du emakumezkoen soldata gizonezkoena baino %25,3 txikiagoa zela.
- 2011–2020 epealdian, arrailak gora eta behera egin du, azken urtean behera egiteko. Azken urte honetan 6.875 eurokoa da. Nahiz eta balio absolutuetan alde handia ez egon 2011ko zenbatekoarekin (7.123 euro), balio erlatiboetan aztertuta arraila 2,0 puntu jaitsi da: 2011ko %25,3tik 2020ko %23,3ra.

### Grafikoa 3– Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak)




## 2 PENTSIOAK

### 2.1. Pentsioak sexuaren arabera

Soldaten atalean esan den bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzekoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2020. urteko 187.935 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 4.050aren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %2,2ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Pentsiodun kopuruaren banaketa oso orekatua da: %49,3 emakumezkoa da, eta beste %50,7 gizonezkoa. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek pentsio guztien %41,3 jasotzen dute, eta gizonezkoek %58,7.

**Grafikoa 4 – Pentsioen banaketa sexuaren arabera -2020**



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen batez besteko pentsioa 16.205 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 22.422 eurokoa.

### Grafikoa 5 – Pentsioen batez bestekoa sexuaren arabera -2020



Azken hamar urteetan emakumezko nahiz gizonezko pentsiodunen bilakaera oso antzekoa izan da. Emakumezkoak 75.836tik 90.672ra pasa dira (+%19,6), eta gizonezkoak 78.545etik 93.213ra (+%18,7).

**Taula 4. Pentsiodunen bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2011</b>	75.836		78.545	
<b>2012</b>	77.509	2,2	80.365	2,3
<b>2013</b>	78.570	1,4	81.665	1,6
<b>2014</b>	79.557	1,3	83.023	1,7
<b>2015</b>	82.269	3,4	85.490	3,0
<b>2016</b>	83.429	1,4	86.777	1,5
<b>2017</b>	85.837	2,9	88.012	1,4
<b>2018</b>	88.221	2,8	91.293	3,7
<b>2019</b>	89.432	1,4	92.229	1,0
<b>2020</b>	90.672	1,4	93.213	1,1
<b>2011/2020</b>		19,6		18,7

Nahiz eta zenbateko osoaren bilakaeran antzeko joera izan, emakumezkoak jasotako pentsioak zerbait gehiago igo dira aztertutako hamar urteetan: +%61,7 (909 milioi eurotik 1.469 milioi eurora). Gizonezkoek jasotako pentsioak 1.475 milioi eurotik 2.090 milioi eurora pasa dira (+%41,7). Horren ondorioz, emakumezkoen pentsioen pisua 3,2 puntu igo da azken hamar urteetan: 2011ko %38,1etik lehen aipatutako %41,3ra. Beraz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %61,9tik %58,7ra.

**Taula 5. Pentsioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2011	908.519.425		1.474.680.151	
2012	951.743.221	4,8	1.529.034.399	3,7
2013	999.917.213	5,1	1.596.829.770	4,4
2014	1.067.389.051	6,7	1.689.496.928	5,8
2015	1.116.723.894	4,6	1.753.863.201	3,8
2016	1.168.100.503	4,6	1.810.292.017	3,2
2017	1.220.037.874	4,4	1.864.525.686	3,0
2018	1.319.366.427	8,1	1.968.134.408	5,6
2019	1.419.002.003	7,6	2.051.076.217	4,2
2020	1.469.301.021	3,5	2.090.017.038	1,9
2011/2020		61,7		41,7

2011tik 2020ra emakumezkoen batez besteko pentsioa %35,3 igo da: 11.980 eurotik 16.205 eurora. Gizonezkoena, berriz, %19,4 igo da: 18.775 eurotik 22.422 eurora. Lehenago aipatu dugun bezala, epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %8,8 igo da.


**Taula 6. Batez besteko pentsioaren bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2011	11.980		18.775	
2012	12.279	2,5	19.026	1,3
2013	12.726	3,6	19.553	2,8
2014	13.417	5,4	20.350	4,1
2015	13.574	1,2	20.515	0,8
2016	14.001	3,1	20.861	1,7
2017	14.213	1,5	21.185	1,6
2018	14.955	5,2	21.558	1,8
2019	15.867	6,1	22.239	3,2
2020	16.205	2,1	22.422	0,8
2011/2020		35,3		19,4

Azken hamar urte hauetan sexuen arteko batez bestekoaren arrailak behera egin du balio erlatiboetan (grafikoaren errenkada urdina): 2011. urtean %36,2koa zen eta 2020an %27,7koa da. Horrek adierazten duena da emakumezkoen batez besteko pentsioa gizonezkoena baino %27,7 txikiagoa dela.

Balio absolutuetan ere, txikitu egin da: 2011an 6.795 euroko aldea zegoen, eta 2020an 6.217 eurokoa da.

**Grafikoa 6 – Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera**



### 3. LANGABEZIA PRESTAZIOAK


#### 3.1. Langabezia prestazioak sexuaren arabera

Soldata eta pentsioekin gertatu zaigun bezala, hemen ere jasotzaileen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, pertsonen sexua lortzerakoan. Horrela, 2020. urtean langabezia prestazioa jasotzen duten 136.657 pertsonatik ez dugu ezagutzen 3.400aren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune txiki horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Langabezia prestazioa jasotzen duten guztietatik, %47,0 emakumezkoa da, eta beste %53,0 gizonezkoa. Zenbatekoari begiratzten badiogu, berriz, emakumezkoek guztiaren %45,8 jasotzen dute, eta gizonezkoek %54,2.



## Grafikoa 7 – Langabezia prestazioen banaketa sexuaren arabera -2020



Azken hamar urteetan langabezia prestazio jaso duten emakumezko nahiz gizonezko kopuruaren bilakaera antzekoa izan da:

- Emakumezkoen kopurua 29.877tik 62.611ra igo da (+%109,6).
- Gizonezkoen kopurua 34.814tik 70.646ra igo da (+%102,9)

**Taula 7. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2011</b>	29.877		34.814	
<b>2012</b>	31.416	5,2	36.736	5,5
<b>2013</b>	30.715	-2,2	35.304	-3,9
<b>2014</b>	28.340	-7,7	29.986	-15,1
<b>2015</b>	25.491	-10,1	24.576	-18,0
<b>2016</b>	23.818	-6,6	22.048	-10,3
<b>2017</b>	22.796	-4,3	20.067	-9,0
<b>2018</b>	23.035	1,0	19.510	-2,8
<b>2019</b>	24.047	4,4	21.272	9,0
<b>2020</b>	62.611	160,4	70.646	232,1
<b>2011/2020</b>		109,6		102,9

Zenbatekoan ere antzeko bilakaera ikusten da: emakumezkoak jaso dutena %82,6 igo da (111 milioi eurotik 202 milioi eurora), eta gizonezkoena %61,2 igo da (148 milioi eurotik 239 milioi eurora).

**Taula 8. Langabezia prestazioen bilakaera sexuaren arabera  
(eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2011</b>	110.552.896		147.975.071	
<b>2012</b>	121.605.054	10,0	164.832.673	11,4
<b>2013</b>	117.290.070	-3,5	156.125.492	-5,3
<b>2014</b>	100.049.303	-14,7	124.872.316	-20,0
<b>2015</b>	83.890.340	-16,2	91.956.972	-26,4
<b>2016</b>	74.316.603	-11,4	77.003.589	-16,3
<b>2017</b>	69.433.627	-6,6	67.255.408	-12,7
<b>2018</b>	68.496.655	-1,3	64.668.545	-3,8
<b>2019</b>	75.171.796	9,7	77.439.559	19,7
<b>2020</b>	201.861.046	168,5	238.507.420	208,0
<b>2011/2020</b>		82,6		61,2


## 4. GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERRESKATEAK

### 4.1. Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Beste atal batzuetan aipatu dugun bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortzen datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2020. urtean erreskateak errenta moduan egiten dituzten 18.004 pertsonetatik, ez dugu ezagutzen 233ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %43,2 emakumezkoak dira, eta beste %56,8 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzten badiogu, emakumezkoek guztiaren %37,3 erreskatatzen dute, eta gizonezkoek %62,7.

## Grafikoa 8 – Errenta moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2020



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2020. urtean 4.825 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 6.157 eurokoa.

Gizarte aurreikuspeneko sistemataraz egiten diren kontribuzio eta ekarpen asko lan kontratuari lotuta daude. Horregatik, emakumezkoen presentzia lan merkatuan handitu den neurrian, erreskateetan duten parte-hartzea ere handitu eginda. Horrela, azken hamar urteetan errenta moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 9.562tik 7.675era (-%19,7) pasa da. Gizonezkoak, berriz, 14.480tik 10.096ra pasa dira (-%30,3). Bi kasuetan urtero eman dira igoyerak, etekin gabe, 2014an, 2015ean, 2016an eta 2020an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 eredu).

**Taula 9. Errenta moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2011	9.562		14.480	
2012	10.113	5,8	14.941	3,2
2013	10.648	5,3	15.463	3,5
2014	9.244	-13,2	12.019	-22,3
2015	6.954	-24,8	8.997	-25,1
2016	6.706	-3,6	8.725	-3,0
2017	6.815	1,6	9.361	7,3
2018	7.359	8,0	9.856	5,3
2019	7.707	4,7	10.224	3,7
2020	7.675	-0,4	10.096	-1,3
2011/2020		-19,7		-30,3

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak. Horrela, 2011an emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 49 milioi euro izan ziren bitartean, 2020an 37 milioi euro izan dira; hau da, %24,1 gutxiago. Gainera, taulan ikusten denez, urte guztietan bariazio positiboak izan dituzte, 2014an, 2015ean, 2016an, 2017an eta 2020an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 ereduan).

**Taula 10. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2011</b>	48.801.743		111.372.260	
<b>2012</b>	54.138.617	10,9	116.647.917	4,7
<b>2013</b>	59.949.583	10,7	125.422.345	7,5
<b>2014</b>	42.984.031	-28,3	81.146.999	-35,3
<b>2015</b>	35.646.621	-17,1	57.882.087	-28,7
<b>2016</b>	34.141.762	-4,2	67.570.153	16,7
<b>2017</b>	33.383.960	-2,2	64.002.666	-5,3
<b>2018</b>	37.130.289	11,2	71.631.590	11,9
<b>2019</b>	37.812.722	1,8	65.576.119	-8,5
<b>2020</b>	37.034.395	-2,1	62.156.777	-5,2
<b>2011/2020</b>		-24,1		-44,2


Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %44,2 jaitsi dira hamar urte hauetan: 111 milioi eurotik 62 milioi eurora. Hauek ere urtero bariazio positiboak izan dituzte, 2014an, 2015ean, 2017an eta 2020an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 ereduan).

## 4.2. Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Erreskateak egiten dituzten pertsonen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, sexua lortzerakoan. Horrela, 2020. urteko 9.393 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 118n sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %42,7 emakumezkoak dira, eta beste %57,3 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzten badiogu, emakumezkoek guztiaren %36,6 erreskatatzen dute (66 milioi euro), eta gizonezkoek %63,4 (114 milioi euro).

## Grafikoa 9 – Kapital moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2020



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2020. urtean 16.631 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 21.528 eurokoa.

Azken hamar urteetan kapital moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 5.856tik 3.965ra igo da (-%32,3). Gizonezkoak, berriz, 10.079tik 5.310era pasa dira (-%47,3).

**Taula 11. Kapital moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2011	5.856		10.079	
2012	5.533	-5,5	9.040	-10,3
2013	5.197	-6,1	8.526	-5,7
2014	5.427	4,4	8.003	-6,1
2015	6.334	16,7	8.408	5,1
2016	5.186	-18,1	7.058	-16,1
2017	4.887	-5,8	6.848	-3,0
2018	5.047	3,3	6.927	1,2
2019	4.426	-12,3	5.976	-13,7
2020	3.965	-10,4	5.310	-11,1
2011/2020		-32,3		-47,3



Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak, baina areagotuta. Horrela, 2011an emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 114 milioi euro (epealdiko handiena) izan ziren bitartean, 2020an 68 milioi euro izan dira; hau da, %42,0 gutxiago.

**Taula 12. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2011</b>	113.650.983		243.672.147	
<b>2012</b>	73.435.474	-35,4	146.978.897	-39,7
<b>2013</b>	78.989.960	7,6	163.928.931	11,5
<b>2014</b>	74.936.206	-5,1	129.739.272	-20,9
<b>2015</b>	83.497.209	11,4	139.719.531	7,7
<b>2016</b>	73.264.430	-12,3	137.768.065	-1,4
<b>2017</b>	69.351.533	-5,3	128.109.863	-7,0
<b>2018</b>	72.677.961	4,8	116.550.078	-9,0
<b>2019</b>	68.169.303	-6,2	116.278.853	-0,2
<b>2020</b>	65.941.514	-3,3	114.314.195	-1,7
<b>2011/2020</b>		-42,0		-53,1

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %53,1 jaitsi dira hamar urte hauetan: 244 milioi eurotik (epealdiko handiena) 114 milioi eurora.